

Noaia!!!

www.noaia.com



Eguneko Zentroa,
asteburuetan ere zabalik



"Zubieta txikia da, txikiak izaten jarraitu nahi dugu,

baina ez gaituzue txikituko"

NOAUA! Kultur Elkarteko Bazkideen Batzar Nagusia

Gai-zerrenda:

- 1.-2007ko memoria eta balantze ekonomikoa.
- 2.-2008ko egitasmoak eta aurrekontuak.
- 3.-Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena.
- 4.-Galdera/ erantzunak.

Eguna:

Apirilak 16, asteazkena.

Ordua:

Lehenengo deialdia, 19.00h.
Bigarren deialdia, 19.15h.

Tokia:

Sutegi Kultur Etxeko
Erakusketa Aretoa

Bordaderri 3, Eguzkitzaldea. 20170 USURBIL • elkartea@noaua.com



KATAMALO
(katamalo)

ostontzearen beharraz

Alex Arregi · Gotzon Barandiaran
Aintzina Lekue · Gorka Muguruza
Gorka Urbizu · Nerea Urbizu

Apirilak 17, osteguna

Kontzertua:

KATAMALO.

Bihotz Bakartien Kubla

20:00h

Sutegi Kultur Etxeko Auditorioan

Sarrera: Sarrerak aldeztu aurretik erosita 5€
(Txiristran eta Noaualko egoniztan salgai).
Egunean bertan 6€.

Noaualko bazkideak 4€tan erosi ahal
izango dute Noaualko egoniztan eta
aldeztu aurretik eskuratzen badute.

Antolatzailea: Noaua! Kultur Elkartea
Laguntzailea: Usurbilgo Udala

poesia **bbk** musika
bihotz bakartien kubla
www.katamalo.org

Albiste iruditan !!

Hitzarmena berritu dute Udalak eta NOAUA! Kultur Elkarteak

Irudian, alkate Xabier Mikel Errekondo eta NOAUA! Kultur Elkarteko lehendakari Ana Aizpurua. Pasa den apirilaren 1ean, Udalak eta NOAUA!k lehenagotik sinatua zegoen hitzarmena berritu zuten udalbatza aretoan.

Duela hiru urte, 2005. urtean izenpetu zuten bi aldeek hitzarmena. Aste hasiera honetako sinatze-ekitaldiarekin beste lau urtez luzatu da akordioa.

Hitzarmen berritu honetan, aldizkariak 2005. urte amaieran eman zuen pauso berria jasotzen da; hamabost egunean behin kaleratuzetik astekari izatera igaro zeneko aldaketa hain zuzen.




UDALETXEKO PLENO ARETOAN EGIN ZEN SINADURA EKITALDIA.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com
 Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan
 Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com
 Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
 Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com
 Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com
 Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.
 Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.
 Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.
 Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.
 Tirada: 2.600 ale
 Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818
 Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

- ZUBIETARRAK, KEZKATUTA **5. OR.**
- KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**
- GAU BELTZA, KONTZERTUA AGINAGAN **12. OR.**
- NEREA ARRUTI JUDOKAREKIN SOLASEAN **15. OR.**



**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

LAUKOTE

**OKINDEGIA
 KAFETEGIA**
 Puntapax kalea. 16 behea (Artzabal). 943 36 09 80

Papera jartzea eta
 Pinturak orokorrean
**FERNANDO
 PINTORAK**

**943 366 019
 943 363 460**
 Kale Nagusia 1 · USURBIL

ZUBIAURRENEA 4 · USURBIL
 i l e a p a i n d e g i

 mistoa
943361951

www.noaua.com
 USURBILGO ATARIA



IDOIA TORREGARAI

Aginte, kontrol eta mandoak

Elkarrekin bizitzen jartzen den bikote batentzat bada une bat beraien etorkizuna urte luzeetan (betirako ez baita-go ezer) baldintzatuko duena: telebista erostea. Behin aparailu hau etxean sartuta, bi maitaleen arteko lehen botere neurketa garrantzitsua hasten baita:

Nork hartu mandoaren kontrola? (barkatu "urrutiko aginte" esapidea ez erabiltzea, baina oso zaila egiten zait, benetan).

Galdera inozoa eman dezake oraindik gurasoekin bizi edota bakarrik bizitzen direnentzat, baina gainontzekoei galdetuz gero, "asuntua" ez dela hain barregarria konturatuko zarete. Kasu askotan etxeko bizitzaren erdigune bilakatzen den tresna honen jabetzak eztabaida ugari ez ezik (lau eztabaidatik bat arrazoi honengatik izaten omen da), banaketak ere ekarri dituelako. Gauzak horrela, familia armoniaren aldeko ahalegin bat egin nahi izan dugu eta hona hemen gai arantzatsu honi buruz egiten dugun ekarpena. Izan ere, zer gertatzen da biotako batek bakarrik kontrolatzen duenean mandoa?

Era honetako pertsonak Homo Gollumensis bezala identifikatzen dira. Bikotekide batentzako (A bikotekide deituko diogu) mandoa bere gorputzaren luzapen bat da. Erxera sartu orduko hartzen du eta ohean sartu arte ez da 10 zentimetroko erradio batetik aldentuko. Hil ala biziko kontua da berarentzat, berak erabakitzen du zer ikusten den eta inoiz beste bikotekideak (B deituko diogu) aparailu ditxosoa ukitzen badu oso normala izan daiteke sukarra izatea, dar-darrean jartzea eta

ahotik txistua botatzea kontrola eskuratzeko zure gainera bota aurretik. Telebistako kontrola berea da eta kitto (nire altxoooooora).

Badirudi egoera honen aurrean B bikotekideak ezin duela askorik egin, etsipenez hartzea baizik. Bada ez! Gure gomen-dioa behin erabakia hartu ondoren, irmotasun eta pazientzia handia izan eta egunero mandoa gradualki gordetzea litzateke. Hau da, lehen egunetan ordu erdiz ezkutatuko diogu, hurrengoetan ordu bete e.a. azkenean kontrolik gabe egoteaz ohitzen den arte. Kasu hauetan, B bikotekidearen integritate fisikoa jokoan ez jartzeko, etxetik kanpora joango gara mando eta guzti. Bide hau hartuz gero, prest egon behar dugu A bikotekidearen oihuak, maldizioak, negarrak eta errekuak jasateko, baina denaren gainetik tinko mantendu behar dugu.

Behin mandotik "desengantxatuta" dagoenean, bigarren faseari ekingo diogu: kontrola konpartitzen ikasteari, alegia. Hemen, hainbat ikasgai menperatu beharko ditu alta hartu aurretik, hala nola: "Nire bikotekideak ere badaki botoiak zertarako diren", "Kate guztiek dituzte eskubide berdinak" edota "Gaur zuk egiten duzu zappinga, maitea". Behin ezagutza hauek barneratu ahala berriro integratu ahal izango du bikote bizitza orekatu eta osasuntsu batean, ziur izan.

Ikusten duzue; mandoa, kontrola edota agintea partitzeko aukera zuen esku dago, B bikotekide horiek (inoiz baino gehiago). Ez galdu aukera.

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubada - Nerea Zinkunegi - Idoa Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika!

Gehiago merezi zuten

Martxoak 14 ostirala, arratsaldeko 18:30ean. Sutegin. Xomorroen Dantzak (Santueneako Antzerki Tailerreko bi taldeak).

Amona-mantangorriak, arrak, erleak, liztorrak, euliak... Sutegin.

Gutxi gora-behera ordu erdiko saio batetan, Santueneako Antzerki Tailerreko bi taldeek inauterietarako prestatu zituzten dantzak eskainiko dituzte berriz.

Otsailaren 23an lerro hauek e-mail bidez Udaletxera bidali nituen, Martxoko Kultur Agendan ikuskizunaren berri eman zezaten. Ondoren, otsailaren 28an NOAUA!ra bidali nituen ere.

Halako batean, martxoaren 14an, herriko etxeetara banatzen den kultur agenda begiratu eta hara! "Xomorroen

dantzak" ez zen agertzen!

NOAUA!n bai, agendaren zutabeetan, martxoaren 14ko alean. Halere, alea argitaratzen zen egun berean izanik, emanaldiari ez zitzaion eman behar (eta merezi) zuen tratamendua. Orain, zergatik lerro hauek?

Emanaldiak penaturik utzi ninduelako. Zergatik?

Oholtzan jardun ziren herriko haurrak kasik hogeita eta ikusleak berrogei, antzezleen senitarteko eta lagunak. Sutegirako kopuru txarra ez dirudi, ordea EZ kasu honetan.

Ostiral arratsaldean, kalean adin guztietako jende ugari aurkitzen zen. Kalean egoteko primerako giroa egiten zuen.

Zer gertatu zen? Herritar askok ez omen zekiten Sutegin ikuskizuna

zegoela. Kalitatearekin eta dohainik, 30-40 minutu onak, entretenituak eta ikusgarriak izan ziren. Neska-mutil hauek saio polita egin zuten eta taula gainean hobetzen ari dira.

Hau ikusirik eta emanaldia prestatzen hartu genituen lanak, ardurak eta kezkek jakinik, penarekin geratu nintzen eta ez dut uste horrela geratu zen bakarra izan nintzenik.

Haurrek gehiago merezi zuten. Beren gogo eta ilusioa zaindu eta elikatzea ezinbestekoa da, etorkizunean kultur jardueran jende aktiboa nahi bada.

*Inauterietako dantzak berriro eskaini ziren, izan ere otsailaren 2an frontoiko musika ekipoaren arazoek ikuskizuna kaltezu zutelako.

Alex Tello

Zubietarren artean, kezka nagusi

Txiki izaten jarraitzeko nahia plazaratu zuten zubietarrek pasa den martxoaren 29an eskaini zuten prentsaurrekoan. Txiki, txikiziorik gabe. Zubietan eraiki nahi dituzten erraustegia, kartzela, kuartela edota 1.100 etxebizitza proiektuen haritik, Foru Aldundiaren edota Donostiako Udalaren jarrera suntsitzailea salatu zuten. Are gehiago, gogorarazi zuten, proiektu horiek planteatzen dituzten artean, Zubietan zer hobetua badenean; garraio publiko zerbitzua edota errepedeak kasu. Desagertzeko mehatxupean egonda, argi dute zein den irtenbidea; herri izaera eskuratzea.

“Zubietan txikia da, txikiak izaten jarraitu nahi dugu. Baina ez gaituzue txikituko”. Hitz horiekin amaitu zuen Zubietako Herri Batzarreko alkate Eñaut Zuriarrainek, hainbat zubietarrek, erraustetaren aurkako plataformetako kideekin edota San Markos Mankomunitateko lehendakari-orde Imanol Azpirozekin batera eskaini zuten prentsaurrekoa.

Zubietan kokatu nahi duten erraustegiari, 1.100 etxebizitzetzi, kartzelari edota kuartelari aurkakotasuna adierazi zieten. Eta arau guztiei muzin eginez eta gezur hutsean oinarrituta, proiektu horiekin guztiekin Aldundiak eta Donostiako Udalak erakusten duten jarrera erasotzaile eta suntsitzailea salatu zuten. “Txikitu, birrintu, desagertu egin behar digute gure herria, gure paisaia, ingurunea, sustraiak, gure arrasto guztia”, adierazi zuten.

Donostiako Udalarari Zubietan zer eta non den ere ez jakiteko interes falta



MARTXOAREN 29AN ESKAINI ZUTEN PRENTSAURREKOA ZUBIETAN.

egotzi zieten. Eta gauzatu nahi dituzten azpiegiturak mendi atzean ezkutatuta nahi izatea leporatu zieten proiektu horien guztien bultzatzaileei.

“Zubietarrok, behintzat, badakigu nolako herria nahi dugun”, adierazi zuten. Giza-legea edo errespetua non duten galdetzen dute, haien esanetan, “galdera handiegia pertsona eskasentzat”.

Duela ehun urte bezala

Azpiegitura horiek Zubietan kokatzea planteatzen ari diren bitartean, Zubietak duela ehun urte bezala jarraitzen duela gogorarazten dute. Estolderia zaharkituekin, errepide kaxkarrekin, errebote plaza berri gabe eta garraio publiko duin bat izan gabe. Azken gai horri buruz, garraio zerbitzuari buruz hain zuten, Foru Aldundiko ordezkariarekin izandako bilkura gogora ekarri nahi izan zuten.

Oinarritzko beharra dela jakinik, Aldundiak, zerbitzua bera defizitarioa dela eta, behar bezalako zerbitzua eskaintzeari ezezko borobila eman zioten. Lotsagarritzat definitu zuten aipatu erakundeko ordezkarien jarrera.

“Zubietarren izena eta izana, altxor preziatua da”

Bostehun biztanle dituen Zubietan desagertzeko mehatxupean bizi dela ohartarazi zuten prentsaurrekoan bildu ziren herritarrek. Egoera horrek, zer nolako irtenbidea behar lukeen argi dute ordea. “Zubietaren izena eta izana, altxor preziatua da”, diote. Horregatik, planteatzen duten irtenbidea herri izaera eskuratzea da.

ARITZ GORRITI

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

CLIMATA-T

klimatizazio orokorra

☎ 687 858 390
climata_t@yahoo.es

ARRAINDEGIA

PELLO

Puntapax Kalea,7
Tlf 36 21 64
USURBIL

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

Kirol Elkarteak



Eguneroko solasgai izaten dugu askok kirola. Eta asteburu eta astelehenetan are gehiago; izan ere, larunbat-igandeetan jokatzen dira txapelketa gehienak eta, batzuk sakonagotik, besteak axaletik, ia kirol ezagun guztien errepasoa egiteko ohitura baitago lagunez inguratutako mahai baten ondoan.

Herrian kirola egiten dugunok gure arteko emaitzak eba-luatzeaz gain, Usurbilgo kirol taldeen egoeraz ere solasten dugu. Aztertzen ditugu nola antolatu edo egituratuta dau-den, zenbat kirolarik osatzen duten taldea eta baita nolako eta nola lortzen dituzten dirulaguntzak ere.

Talde bakoitzak, bere egunerokotasunean, bere bidea egi-ten du, eta gauzak datozen bezala hartu eta erantzun bat ematen saiatzen da, bakoitza bere erara eta ahal duen moduan.

Herri askotan daude kirol talde sakabanatuak beharrean, izenak ematen dio izana, Kirol Elkarteak. Bateratuak. Eta, horrek eskatzen duen gisan, antolaketa sendo batez hornitua. Ez naiz aditua horretan baina bere presidente, idazkari eta gainontzekoekin imajinatu nahiko nuke.

Konpetizioari dagokion kirola gizarte zati batek bakarrik probexten du, eta gainera aisialdiari irabazia ateratzeko. Ez



da hil ala biziko zerbitzu bati etekina sortuko dion gizarte zatia. Baina onurak ezin dira ezkutatu: kirol-administrazio-aren aldetik burokrazia lanak garaiz eta behar bezala egingo lirake; ekonomiari aurre egiteko subentzioak lortuko lituzken sekzioa; eta kirolarien aldetik, Elkarteari laguntza emateko bultzada zernahi antolatu behar izanez gero; esaterako, garagardo festa, eski irteera...

Hau guztia aurrera ateratzeko, noski, ezin da bolondres batzuen lanarekin bakarrik kontatu. Profesionalizatu beharra dago. Eta merezi du, hain ditugu instalakuntza onak...

SANTUENEA

PAKO AGUDO

Aste Santuko pakea



Aste Santua pasata zaila da berririk aurki-arzea gure auzoan eta hori ere berria bada. Egun gutxi izan arren aukera izan ezkerero aprobetxatzeko modukoak. Auzoa zaintzen geratu garenok euriaz gain ez dugu ezer berririk aurkitu egun hauetan. Aparteko arazorik ez, ohi baino jende gutxiago eta etxean sartuta egoteko eguraldi aproposa. Horrela ikusita badirudi egun desatseginak bihurtu direla baina egia esateko lagun arteko tertuli, afari eta bazkariak egiten diren bitartean erraz egiten zaie aurre euri, tximista eta kazkabarrari.



Poliki poliki denak ari gara denboralearen ondoren barealdira bueltatzen eta udaberriari sartu eta eguraldia hobera egiten digun bezala animatu eta konturatzerako maiatzeko zubian gaude. Zubi santuaren zain geratu beharko gara beraz, Aste Santuan kanpora atera ez eta herrian geratu garenok. Ea orduan aukera izaten dugun auzoaren urruntasunaz gozatzeko.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Lotsagarria da

Oraintxe etorri naiz zinematik, "Los budas explotaron de vergüenza" pelikula ikustetik. Ez dakit ikusiko zenu-ten, baina guztiz berezia iruditu zait.

Afganistan herrialdean kokaturik, ume txiki bat da protagonista, eskolara joateko milaka abentura pasa behar dituen.

Harrigarria da zenbateraino aldatu daitekeen eskolarekiko ikuspuntua herrialde batetik bestera. Hemen umeak derri-gortuta joaten dira, eta han berriz, desiatzen daude eskolara joan eta zertxobait ikasteko. Kuaderno bat eta arkatza, gutxi batzuek borragoma eta zorrozkiola, besterik ez dute, baina zoriotsu dira, pozik daude, beti dute irribarre bat ahoan, gainontzeko beste bat ateratzen digutelarik.

Batzuk hainbeste, eta beste batzuk horren gutxi... Eta hala ere, gutxi dutenak dira duten gutxi hori gehien konpartitzen dutenak. Bai, lotsagarria da gaur egun munduan dugun egoera, lotsagarria da oraindik ere horrelako egoerak ikustea eta are lotsagarriagoa egoera aldatzeko ezer ere ez egitea.

Horregatik izango da agian izenburua horrela, eta agian bai, budak egoera honen lotsaz egingo zuten eztanda.



ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

Udaberria iritsi da!



Jadanik udaberria iritsi da. Eguraldi on honek lagun artean eguna igarotzeko gogo sortzen du. Eguzki izpien goxotasunean bazkari edo hamaiketako zoragarri bat dastatu, mendi buelta egin... Eguraldiak edonori umorea berpizten dio.

Orain dela gutxi izan dugun ekaitzak izugarriko kalteak eragin ditu gure kostaldean. Hondartzek erabateko kalteak izan dituzte bai Deba, Zumaia, Orio eta Donostiakoetan adibidez. Aipagarrienak Donostian gertatuko txikizioak izan dira.

Zorionez badirudi ekaitza baretu dela eta eguzkiari irteten utzi diola. Bazen garaia! Pentsatzen hasia bainengo udaberria ez zela sekula iritsiko.

Beraz, badakizue eguzkiak transmititzen duen energia positibo guztia hartu eta indarrez bete gorputza. Negu luze eta hotzaren ondorioz ederki etortzen baita eguzkia hartzea eta zer esanik ez Aste Santuetako oporrak amaitu eta lanera itzultzean.

Amaitzeko, ondo pasa udaberrian eta kontuz alergiekin aurten indartsu datoz eta!



AGINAGA

AITOR HELETA

Gau Beltza



Hurrengo larunbata, apirilak 5, Aginako Jai batzordeak eliza zaharrean, Gau Beltza deituriko kontzertua antolatu du. Bertan Anestesia, Metraleta eta Lurpe taldeek joko dute, gaueko hamarretatik aurrera, 5 euroren truke.

Iaz, Jai Batzordekoek, herriko jaietako programaz gain, izugarriko lana egin zuten eta denok aho zabalik utzi gintuzten, Aginako arraunlariek Kontxan irabazitako banderaren 50. urtemuga inguruan antolatutako ospakizunetan.

Aurtengo jaiak antolatzen hasiak dira ere, eta oraindik indarrak gelditzen zaizkie tamaina honetako kontzertu bat egiteko. Badute gazte hauek lan egiteko eta antolatzeko gaitasuna!

Bestalde, Interneten nabe-gatzeko aukera emango diguten bi ordenagailu martxan daude dagoeneko. Arrate tabernan eta ludotekan, erabilpena doanekoa da.



ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Herrikoa

Azto, ikastolako umeei sarrerak eman azizkieten Errealaren partidu bat ikustera joateko. Han joan ziren Zubietako ume batzuk, Usurbileko beste saldo handi batekin. Neska batzuk ere sartu ziren merke, bost euro pagatuta. Herrikoia izan nahi, dirudienez. Esan didatenez, han aritu ziren taldea animatu nahian: putasemeka, mekaguendioska... zainak lehertu beharrean, bere senetik atereak. Nola mutilak hala neskak, sexukidetasunak beste hainbat arlotan lortzen ez duen bezala. Zer den herrikoia izatea!

Gaur, bestela aritu gara futboleant. Plazan, bost urtekoetatik hasi eta halako hamar gehiago ditugunon arte, dozena pare bat jokalaria. Ate-zutoinak lurrean utzitako jertseak, garbigailura zuzenean bota beharrekoak etxera iritsitakoan. Neska-mutilak, handi-txikiak, guraso-umeak anabasean, futboleant oso aurrera egingo ez genukeen moduan ziur aski: jokoan baino jolasean. Herriko neska-mutiko ia erdiak, bertan.

Bihar, auskalo. Seme-alabak eskaintzen dizkiegun bideetatik ibiliko dira. Merke emandako bide narrasetatik, edo garestia goak diren zuzenagoetatik. Beharbada "herrikoia" izan ez, baina gure herriak behar dituen bideetatik...

Mesedez, ez eskatu poztea Erreala lehenengo mailara igotzen denean.



2008ko udal aurrekontu proiektua behin betiko onartu da udalbatza plenoan

2008ko Aurrekontu Proiektuari aurkeztutako erreklamazioak erantzutearekin batera, aurrekontuak behin betikoz onartu ziren pasa den martxoaren 14an izan zen ezohiko udalbatza saioan.

EAtik Luismari Ormaetxeak eskerak eman nahi izan zizkien alegazioak aurkeztu zituzten herritarrei. Nahiz gogoratu zuenez, “bat bera ere ez den onartua izan. Alderditik aurkeztu diren alegazioetako bat ere aintzako-tzat ez zela hartu adierazi zuen Ormaetxeak. Horien artean leudeke bere esanetan, “lehendik dauden konpromisoak gauzatzeko onartzea beharrezkoak direnak”. Behin betiko onarpena atzeratzea eskatu zuen, bertan ageri den superabitari dagokion dirukantitatearekin zer egin aurreikusi edo erabaki arte.

Aurrekontuen aurkako iritziak jaso zituzten baita, EAJ-PNVko eta PSE-EEko ordezkarien aldetik ere. Iñaki Illarramendi jeltzalearen esanetan, “guretzat beste lehentasunak daude”. Alderdi sozialistako bozeramaile Amaya Goyaranek ere aurka zegoela argitu zuen. Alegazioen diktamenari dagokionez abstenituko zela esan zuen.

Aralarretik aurrekontuen eduki askorekin adostasuna erakutsi zuten. Baina aldaketa eskatu zuen Lontxo Zubiriak, “informazioa tratatzerakoan. Informazioa garbi azaldu eta erraztu dadila”.

EAE-ANVko ordezkariak alde bozkatu zuten. EAJ-PNVk eta EAK aurka. PSE-EE eta Aralar abstenitu ziren.

ARITZ GORRITI



MARTXOAN BITAN BILDU DA UDALBATZA PLENOA. EZ-OHIKO BILKURA EGIN ZEN MARTXOAREN 14AN; OHIKO UDALBATZA PLENOA MARTXOAREN 25EAN.

Udal lanpostuen zerrenda, onartua

Aurrekontuekin batera onartu zen baita Lanpostuen Zerrenda eta Plantila Organikoa. Legediaren arabera, urtero udal aurrekontuekin batera onartu beharrekoak dira. EAE-ANVtik udal lanetarako barne baliabideak izatearen aldeko apustua egiten dute. Azpimarratzekoa da honenbestez, Emakumeen berdintasunerako, Pertsonal eta Kontratazioetarako edota Nekazal eta Ingurumen gaietarako teknikari bana kontratatzeko agertu izan duten asmoa.

EAE-ANVREN ASMOA

“Udal lanetarako barne baliabideak izatearen aldeko apustua egiten dugu”

EAtik Luismari Ormaetxeak baikortzat jo zuen akatsei lotuta aurkeztutako alegazioak onartuak izatea. Edukiei

lotuta ordea, bestelako iritzia agertu zuen Ormaetxeak. Proposatzen diren hainbat lanpostuetarako, funtzionarioen ordez bestelako formulak erabiltzea proposatzen zuen.

Horri erantzunez, alkate Xabier Mikel Errekondok langileen maila eta proposatzen diren lanpostu berriak analisi berean parekatzea okertzat jo zuen. “Zerikusirik ez bata bestearekin”, adierazi zuen.

EAJ-PNVk udaltzain zerbitzua indartu beharra zegoela gogorarazi zuen. “Guk 24 orduko zerbitzua proposatzen genuen. Baina murriztu egin da”, adierazi zuen Iñaki Illarramendik. Behin behineko erabakia izango delako, konfiantzazko bozka ematen jarraituko zuela berretsi zuen PSE-EEko kide Amaya Goyaranek.

EAE-ANVren eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zen proposamena. Aralar abstenitu zen. EA eta EAJ-PNVk aurka bozkatu zuten.

LUISMARI ORMAETXEA, EA

Eskerrak eman zizkien alegazioak aurkeztu zituzten herritarrei, “nahiz eta bat bera ere ez den onartua izan”

LONTXO ZUBIRIA, ARALAR

Aurrekontuen eduki askorekin ados egon arren, aurrerantzean informazioa garbi azaldu eta erraztu dadila eskatu zuen

IÑAKI ILLARRAMENDI, EAJ

“Guk udaltzaingoaren 24 orduko zerbitzua proposatzen genuen, baina murriztu egin da”

Arrasateko atentatuaren inguruko bi mozio aurkeztu ziren

Arrasaten izandako gertakariak ere tartea izan zuten martxoaren 14ko ezohiko pleno saio berean. Gai horren inguruko bi mozio aurkeztu ziren, PSE-EE eta EAE-ANV udal taldeek eginikoak, baina bakarra aztertu zen azkenean. EAE-ANVren mozioa ez zen egokitasunez aurkeztu eta atzera bota zen.

Sozialisten mozioak Isaias Carrascoren hilketa gaitzesten du. Amaya Goyaranek irakurri zuen idatzian aipatzen denez, indarkeriak, errepresioak eta askatasun faltak euskal gizartearen elkarbizitza okertu baino ez dute egiten. Eta samina eragin. Ideia

guztiak defendatzeko berme gisa, inork indarkeria ez erabiltzea eskatzen da.

PSE-EEREN MOZIOA

“Sozialisten izenean aurkeztutako testua babestu zuten EAK eta EAJ-PNVk. Abstentziora jo zuten EAE-ANVk eta Aralarrek”

Sozialisten izenean aurkeztutako testua babestu zuten EAK eta EAJ-PNVk. Abstentziora jo zuten, EAE-ANVk eta Aralarrek. Azken alderdi horrek mozioari egindako zenbait emendakin

ez ziren onartu.

Bestalde, EAE-ANVk aurkeztekoa zuen mozioa ez zen eztabaidatu, ez zelako egokitasunez aurkeztu. Testu hartan aipatzen denez, indarkeriaren adierazpen guztiak bezala, gertatutakoak gatazkari behin betiko benetako konponbidea eman eta herritarren eskubide guztiak errespetatuko diren eskenatoki demokratiko baten beharra areagotzen du. Udalak konponbidetako benetako prozesu baten aldeko apustua egiten du; bide polizialak alboratuta edota herritarrek libre eta demokratikoki erabakitze eskubidea errespetatuko lukeen akordio politiko zabal baten alde eginda.

EAKo egoitzaren erasoari lotutako mozioa ez zen onartua izan

Earen egoitzak azken aldian jasandako erasoak salatze mozioa aurkeztu zuen alderdiak berak. Testuan bertan politikotzat definitzen dira erasoak. Hauteskundeak baldintzatu nahi izan dituztela gaineratzen da. Herritargoan beldurra zabaldu eta herri giroa nahastea dutela helburu. Eraso honen harira, EAK otsaileko udalbatza plenoan aurkeztu zuen mozioa, baina ez zen onartua izan eta gaia aztertu gabe geratu zen. Honen aurrean, EAK eta EAJ-PNVk bat egin eta ez-ohiko pleno bat deitzeko eskaera egin zuten udal errejistroan. Martxoaren 14ko ez-ohiko udalbatza plenoan aztertu zen, azkenean, EAREN mozioa.

EAJ-PNV, PSE-EE eta Aralarreko ordezkariak elkartasuna adierazi zieten EAKoei. EAE-ANVtik zuten informazioaren arabera, eraso politikoak ez, gertaerak “ganberradak” izan zirela

adierazi zuten. Xabier Mikel Errekondok gogorarazi zuenez, “erantzun politikoa balitz, nire erantzuna beste era batekoa izango litzateke”.

ERASOAK SALATZEKO MOZIOA

“EA, EAJ-PNV, PSE-EE eta Aralar mozioaren alde bozkatu zuten; EAE-ANVk aurka”

Edozein kasutan, salagarritzat jo zituen ekintzok. Baita pasa den urteko maiatzeko ere. Bere esanetan, orduko hartan, “Udal honek ez zuen erantzunik eman. Zuek (EA-koei) zineten udal gobernu hartan”. Gaia “mediatikoki” erabili dela gaineratu zuen, hauteskunde giroan.

Mozioa bozkatzerakoan, aldeko eta aurkako boto kopuruen berdinketa ger-

tatu zen, zinegotzietako batek ez baitzuen udalbatza plenoan egotarik izan; sei zinegotzik alde bozkatu zuten (EA, EAJ-PNV, PSE-EE, Aralar) eta seik aurka (EAE-ANV). Bi aldiz egin zen bozketa eta emaitza bera errepikatu zen. Kasu horretan, Alkateak kalitatezko botoa emateko eskubidea du. Eta mozioaren aurka bozkatu zuen. Mozioa beraz, ez zen onartu.

Udal dirulaguntzak arautzeko ordenantza

Udal dirulaguntza kopurua 2.000 eurotik 3.000 euroko mugara igotzea onartu zuen udalbatzaren gehiengoak pasa den martxoaren 25ean. PSE-EEko zinegotzia abstentitu zen. Orain, 30 eguneko tartea zabalduko da informazio publikorako eta erreklamazioak aurkezteko.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA MANTENIMENDUA ETA KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plateer konbinatuak

TABERNA

Eguneko Zentroa, asteburueta ere zabalik

Duela hilabete hasi ziren asteburueta zerbitzua eskaintzen

Martxoaren hasieratik abian da Eguneko Zentroko asteburueta-ko zerbitzua. Astelehenetik igandera zabalik dago. Une honetan, lau herritar egoten dira asteburueta, hamabi astegunetan. Koordinatzaile Itziar Zubirik lehen aste hauetako balorazioa eskaini dio NOAUA! astekariari.

NOAUA! Zer moduzko hasiera izan du?

Itziar Zubiri. Oso ondo doa. Herritar gutxirekin hasi gara. Sei plaza ditugu asteburu eta jai egunetan eta lau herritarrekin hasi gara. Astegunetan hamabi etortzen dira. Bestalde, funtzionamendu mailan dena lotzen saiatu gara; hiru langileekin bildu gara, ekintzetan ere aldatzeko txertatu ditugu...

N. Astegunen aldean, zertan ezberdintzen da asteburueta eskaintza?

I. Z. Erabiltzaileek asteburu dela nabaritu behar dute, astegunetako erabiltzaile berak baitira aste amaieran datozenak. Asteburueta ekin-tzak aldatzen dizkiegu, ekintza indibidualagoak egiten ditugu. Laguntzaile bakarra egoten da haiekin. Igandetan ere janaria berezia da. Arratsaldeetan joko didaktiko gehiago egiten ditugu; kartak, dominoa, bingoa... Aldea nabari dezaten.

N. Guztia beraz, haien igande partikularra izan dezaten?

I. Z. Bai. Astegunetako dinamika ezin da zeharo aldatu. Orduegiak errespetatu behar dira. Baina horren barruan, haientzat egun ezberdinak izaten saiatzen gara. Hain talde txikia izanda, zerbitzua asko pertsonalizatu liteke. Asteburueta haiekin egotea lehenesten da.



ASTEBURUETAN DRAINGOZ LAU DIRA EGUNEKO ZENTRORA JOATEN DIRENAK.

N. Asteburuari begira, lau erabiltzaile momentuz?

I. Z. Pertsona bat gehiago interesatua dago. Hona datorrenak, lehenik, zentrorra egokitu behar du. Egokitzapena denontzat da; erabiltzaileentzat, senitartekoentzat eta guretzat. Beti triangelu bat da.

ITZIAR ZUBIRI

“Eguneko Zentroa erabiltzailearentzat eta senitartekoentzat pentsatua dago, oso baliabide ona da”

N. Eta triangelu hori beti kontuan hartu behar erabiltzaile berri bat datorrenean. Zer egin ohi da hona etorri aurretik?

I. Z. Astegunetan aplikatu ohi den prozedimendu bera da. Beti Gizarte Zerbitzuek jakinarazten dute zein erabiltzaile datorren. Gero, hona etortzen hasten direnean, egokitzapen prozesu bat pasa behar dute. Tarte horretan, erabiltzailea zer moduz dagoen baloratzen joan behar dugu senitartekoei eta guk. Fitxak betetzen ditugu egunero, zer moduz doakien jakiteko.

N. Zertan datza egokitzapen aldi horrek?

I. Z. Ez da ezer berezirik egiten. Erabiltzaileak etxean egotetik hona etortzera egokitu behar du. Haientzat ez du zerikusirik etxean egotearekin. Jende guztia berria da, dena partekatu behar dute, arau batzuk errespetatu...

N. Erabiltzaileen senideek eskertuko dute asteburueta zerbitzua.

I. Z. Senitartekoen eskariz jarri dugu martxan. Une honetan lau herritar daude. Asteburueta noiz-behinka etortzeko ere aukera dago. Gaur egun, gehienez seirentzat dago lekua, oraingoz nahikoa. Astegunetan ere, momentuz, ez dago zerbitzua zabaltzeko beharrik.

N. Joera hori zabaltzen ari da?

I. Z. Beharra handitzen doa. Hamalau urte daramatzat sektorean, eta ezberdintasunak nabari ditut. Kasu bat izan dut, aitona etxean izan eta haren semea Alzheimerrarekin Eguneko Zentrorra etortzen zena. Horrelako kasuak geroz eta gehiago gerta litezke.

Ostegun honetan osatuko da Usurbil eta Lasarte-Oria berrindustrializatzeko kontseilua

Pasa den urrian Michelinek lanpostu murrizketa iragarri zue-
nean, Michelin Fundazioak
berrindustrializazio Kontseilua sortuko
zuela aurreratu zuen. Asmoa, Usurbil
eta Lasarte-Orian enplegu gutxitze
horri aurre egitea litzateke. Lanpostu
berriak sortzea alegia.

Usurbilgo Udaletik jakitera eman
dutenek, apirilaren 3an bildu eta osatu-
ko da lehen aldiz, Usurbil eta Lasarte-
Oria Berrindustrializatzeko Aholkulari
Kontseilua Michelinek. Aipatu
Kontseiluaren aurkezpena egingo da.
Estatutuak aurkeztu eta onartzea jorra-
tuko duten beste gaitako bat izango
da. Berrindustrializazio Planaren helbu-
ruak ere finkatuko dira. Zer-nolako
laguntzak bideratuko diren zehaztuko
duten beste puntuetako bat izango da.

Erakundeak, sindikatuak...

Partaidetza zabala izango du apirila-
ren 3an aurkeztuko den Kontseilua.
Bertan bilduko dira: Xabier Mikel
Errekondo (Usurbilgo Udala), Ana
Urchueguia (Lasarte-Oriako Udala),
Arantxa Tapia (Gipuzkoako Foru
Aldundia), Bernabé Haro (CCOO sin-
dikatuak), Jon Martin (LAB sindikatuak),
Iñaki Telletxea (Eusko Jaurlaritzan),
Felix Sanchidrian (Michelin



MICHELIN FUNDAZIOAK SUSTATU
DU AHOULKULARI KONTSEILUA.

Fundazioa) eta Helia Tellez de Meneses
(MOA-BPI Group).

Kontseiluak aholkulari izaera izango
du soilik, ez du erabakitze gaitasunik
izango.

Lanpostu berriak sortzea bultzatuko
luke, deslokalizaziorik ez. Sortuko
diren lanpostu berri horiek galdutako-
en mailakoak izango dira, hots, indus-
trialak. Jakinik, horrek zeharkako beste
hainbat lanpostu sortzea ekarriko
duela.

Apirilaren 3koa lehen bilkura baino
ez da izango. Bertan finkatuko baita lan
plangintza, baita hurrengo hitzorduak
noiz egin ere. Aholkulari lanak egiteaz
gain beraz, berrindustrializazio plan
horren jarraipena egingo du hilaren 3an
bilduko den Kontseilua.

Gizarte Zerbitzuen arloko dirulaguntzak

2008. urtean Gizarte
Zerbitzuen arloan egitasmo-
ak burutzeko dirulaguntza eskaera
egiteko epea ireki da.

Deialdi honen bitartez, ekimen
hauek izango dira dirulaguntza jaso-
tzeko aukera izango dutenak: gizar-
te zerbitzuen arloan ekimenak gara-
tzea, beti ere, Usurbilgo Udalak edo
bere erakunde autonomoek egiten
dituzten ekimenen osagarri badira
edo ordezkaten badituzte edo era-
bilera publikoko edo gizarte intere-
seko jarduerak badira. Horretarako,
deialdian ezartzen diren baldintzak
bete beharko dira.

Eskariak Udaleko Erregistro
Nagusian aurkeztu daitezke
Udalak horretarako jarri dituen
eskari-orrien bidez. Diru-laguntza
eskaera egiteko, dokumentazio hau
eraman behar da Udalera: diru-
laguntza eskari normalizatua, ekin-
tzei buruzko fitxak, eskatzailearen
NAaren fotokopia, Identifikazio
Fiskalaren Kodearen kopia (edo
NAaren kopia, hala badagokio) eta
Gizarte Segurantzarekiko betebe-
harretan egunera egotearen eta
Ogasuneko betebeharrak betetzea-
ren agiria.

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 - ASTEASU
943 69 68 52 - 620 800 186

Kalkos kopisteria

FOTOKOPIAK
zuri-beltza · koloretan

BANDERA SALMENTA



PINTORE KALEA 7 · LASARTE-ORIA
943 376 424 · 943 376 155 (FAX) kalkos@copisteriakalkos.com

Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97




Larunbat honetan, Gau Beltza Aginagako Eliza Zaharrean

Anestesia taldeak "Terapia" diskoa plazaratu zuen 2006 urte amaieran. Sei urteko etenaldiaren ondoren itzuli ziren, eta nola gainera. Beti bezain indartsu. Zaleak ere itzuleraren zain zeuden. Izan ere, ordutik hona asko izan dira eskaini dituzten emanaldiak. Zarautz aldeko laukotea Aginagako Eliza Zaharrean arituko da larunbat honetan, Lurpe eta Metrailetarekin batera.

Aginagako Jai Batzordeak antolatu du Eliza Zaharrean egingo den kontzertua. Gau Beltza izenekoan, Anestesia, Lurpe eta Metraileta taldeak arituko dira zuzenean larunbat honetan.

20 urte errepidean

Talde denen artean, aipatzekoa da Anestesiaren ibilbidea. Aurten 20 urte beteko ditu Zarautzko laukoteak. Taldekide aldaketak izan dira urte hauetan guztietan, baina hasieratik mantentzen dira Beloki baterijolea eta Mikel Kazalis gitarrajolea. Dena den, aipatzekoa da Anestesiako lehen baxujolea, Dani, taldera itzuli dela.



ANESTESIA (IRUDIAN), LURPE ETA METRAILETA TALDEAK ARITUKO DIRA.

Larunbateko kontzertuan "Terapia" diskoa aurkeztuko du Anestesiak, baina aurreko lanetako kantuak ere eskainiko ditu.

Anestesia indarberriturik itzuli da. Bere bidetik aldendu gabe, doinu sendoa osatu du disko berrian: zuzena, gordina eta apaindurarik gabekoa.

Gau Beltza: Apirilaren 5ean, Aginagako Eliza Zaharrean. Anestesia, Lurpe eta Metraileta taldeak, 22:00ean.

Sarrerak salgai: Eguzki (Zarautz), Unar (Orio), Arrate (Aginaga), Irrati (Usurbil), Jalgi (Lasarte-Oria) eta eguznean bertan takilan.

Apirilaren 17an, Katamalo ikuskizuna Sutegin

Gotzon Barandiaranek Katamalo poema liburua kaleratu zuen iazko azaroan. Horrekin batera, hainbat musika liburu horretako poema batzuk musikatu zituzten eta izen bereko CDa kaleratu zuten. Hain zuzen, disko horretako kantuak izango dira entzungai apirilaren 17an osteguna Sutegin auditorioan.

Ez garena azaldu beharraz, lotsaz, harrokeriaz, sakon maitatzeko beldurraz, itxurakeriaz dihardute Katamaloko abestietako hitzek. Izan ere, Katamalo hitzak mozorroa esan

nahi du bizkaieraz. Gorka Urbizu (ahotsa eta gitarra), Nerea Urbizu (pianoa, kajoia eta ahotsa), Alex Arregi (gitarra eta ahotsa), Aintzina Lekue (bibolina) eta Itxaso Etxebeste (baxua) arituko dira zuzenean, Gotzon Barandiaranek sarrera literarioa egin ondoren.

Ikuskizuna: 'Katamalo', Bihotz Bakartien Kluba taldearen eskutik.

Non: Usurbilgo Sutegin.

Noiz: apirilaren 17an osteguna, arratsaldeko 20:00etan.

Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkarte.

Laguntzailea: Usurbilgo udala.



BERRI TXARRAK TALDEKO KANTARIAK HARTZEN DU PARTE KATAMALO IKUSKIZUNEAN.

“Euskara eta hizkuntza indoeuroparrak” tesia aurkeztuko du Eñaut Etxamendik Sutegin

Eñaut Etxamendik (1935, Ezterenzubi-Nafarroa Behea) urteak egin ditu hizkuntza indoeuroparrak eta euskara alderatzen. Tesi hori izango du hizpide apirilaren 8an asteartea Sutegin eskainiko duen hitzaldian. Nafartarrak taldeak antolatu duen hitzaldia arratsaldeko 18:30ean hasiko da.

Euskarak, Europako hizkuntz zaharretakoak, jatorri argirik ez duela entzun dugu maiz. Hala adierazi diogu gure solaskideari eta hauxe Eñaut Etxamendiren erantzuna, berak idatzi bezala orri honetan jaso duguna: “euskara Europako hizkuntz zaharrena. Nolaz erran ahal izan da hori? Asmu huts bat? Intuizio genial bat? Ez dakit nik. Zeren, euskarak ez du ukan bertze Europako hizkuntz gehienek edo guziek ukan duten bezalako konparaketa azter-lan zehatzik (eslavikoek, armenierak, ez hain aspaldi albanierak edota hittiterak...). Indo-europear hizkuntzak (100 batez goiti) XIX.mendean ulertuak izaiten hasi ziren. Orduko adituek mintzaira horiek senidetzen zirela elgarrekin ikusi zuten. Baina geroztik jakintsunek, XIX. mendean ohartu gabeko arpegi zoinbait edo asko hantzean diete, eta

hoitarik garrantzitsuenetako batzu orai artino bakarrik euskeran uste zirenak”.

Indoeuropar hizkuntzetan ere ageri da ergatiboa

Bestelako adibiderik ere eman digu. Ergatiboa adibide hartuta, euskara eta hizkuntz indoeuroparrak parekatu ditu: “Sintaxi hori euskeran *deskubritu* zen lehenik, bertze biziki anitz mintzairetan badela badakigu orain. Hori da adibidez: aita-K, zu-K, ni-K... egin, ikusi, entzun, ereman aldiz: aita, zu, ni... etorri, jua, izan, erori, egon... Subjekto berak 2 forma. Sintaxi hori indo-europar hizkuntzetakoa zela A.Martinet-en azter-lanek jartzen dute zut-zuta (...)”.

Idazlea eta kantaria ere bada

Bere tesia osatzerakoan, genero eza eta aditz nominala edo “izen-aditza” bezalako arloetan ere erreparatu du Eñaut Etxamendik. Dena den, hiztegian ikusten omen da euskara dela zaharrena. Emile Benvéniste frantziarrak (1935) asmatutako metodologia aipatzen du Eñaut Etxamendik hitzen egitura azaltzeko garaian: “nola hauts edo nola apurt hitza, ohartzeko zein edozer diren bere gaiak. Lankera hori dut nik 10 urte



APIRILAREN 8AN ESKAINIKO DU
HITZALDIA SUTEGIN (ARGAZKIA: ARGIA).

hontan baliatzen eta garbi-garbi ikus daiteke euskeran eta indo-europear hizkuntzetan forma berez eta tresneria gramatikal berdinez direla eginak hitzak, aditz flexioneak, deklinabide isats eta abarrak”.

Eñaut Etxamendik hainbat liburu argitaratu ditu. Kantari trebea ere bada. Etxamendi eta Larralde bikoteko kide izan da urte askoan. NOAUA!ri adierazi dioenez, “ez gira ez lehen bezala ibiltzen oholtzetan. Halere, 2007an bi aldiz plazetan ari izan gira Larralde eta biok, abagune bereziz. J.L. Lakarekin ere aritu naiz behin edo bertze. Nihauren adinek lagun zoinbeit bagira ‘Amikuze kantuz’ guhauren atseginez aritzen gira hantxe-hementxeka”.

Sorosle eta sorospen ikastaro berri bat hasiko da datorren astean, DYAk antolatuta

Apirilaren 9an hasiko da DYAk antolatu duen ikastaroa. Hiru astez luzatuko da ikastaroa eta Udarregi ikastolan eskainiko dute. Apirilaren 9an hasi eta apirilaren 29ra arte iraungo du, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, astelehenetik ostiralera.

Arriskuei aurre egiteko

Ikastaroan parte hartzeko ez da aurrez ezagupenik behar. Aldiz, egunerokotasunean aurki ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko da: bihotz eta birika susperketa, zauriak,

hausdurak, erredurak... Ezagupen oso arruntak baina oso lagungarriak direnak. Gainera, modu eroso eta atseginean erakusten dira eta teoria eta praktika uztartzen dira. Ikastaro amaierako frogak gairatzen duenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen sorosle titulua eskuratzeko aukera izango du. Eta EHUrako bi kreditu jasotzeko aukera izango du.

Matrikularen prezioa: 75 euro (ikastaroko txostena barne). Ikasle kopurua mugatua da, ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzearren. Izena emateko



UDARREGI IKASTOLAN
ESKAINIKO DUTE IKASTAROA.

edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 46 46 22 telefono zenbakira.

Kaixo lagunok!

Ez dakit ezagutzen ote nauzuen baina ni Udarregi Elkastolako Haur Hezkuntzako harra naiz.

Jolaslekuan bizi naiz eta pixka bat triste nago, ze aurreko ostiralean norbaitek nirekin jolastu ondoren, nire zati bat eramatea erabaki zuen. Nire "ipurdia" alegia. Eta azaltzen ez denez idaztea bururatu zait ea zue-tako norbaitek ikusi ote duen edo...

Ez dut nor izan den jakin nahi, berdin zait, soilik

nire ipurditxoa azaltzea nahiko nuke. Gainera HH2ko haurrak ere, ni bezala, pixka bat triste daude. Nirekin jolastea gogoko dute eta orain zati hori gabe dena puskatuko ote naizen beldur dira.

Beraz hemen nire eskaera; ikastolan inguruan edo nire ondoan utzi falta den zatia eta kitto, poz-pozik jarriko gara denoook!

Aldez aurretik, eskerrik asko zuen laguntzagatik.



HAUR HEZKUNTZAKO JOLAS-TOKIAN
DAGOEN HARRA.



EZEZAGUNEK HARRAREN ATZEKALDEKO
ZATIA ERAMAN DUTE.

URDAINTZI S.L.
Orainkuntza

943 36 12 26
943 36 12 26
943 36 12 26

JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA

Juan Jose enea, 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza

TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Ileapaindegia eta Solarium-a

Ioli
Lizarralde

Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.
Zubiaurrenea, 5B © 943 361 971

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Nerea Arruti judoka

Europako txapelketa jokatzetik gertu ibili da

Portugalen jokatu berri duen txapelketan, Europarako txartela eskuratzear izan da Nerea Arruti Usurbilgo judo klubeko kirolaria. Urnietarra bera, jaioterrian hasi zen Marijo Sardon irakasle zuela. Haren bidez etorri zen Usurbilgo klubera. Egun, 18 urte ditu eta dagoeneko makina bat meritua lortutakoa da.

NOAUA! Espainia mailako txapelketan lorpenen bat, horixe zen zeure aurtengo erronka. Bete al da Madrilgo txapelketarekin?

Nerea Arruti. Bete zen gutxi gorabehera. Hirugarren postua ondo dago, baina lehen bi postuetan sailkatuko nintzela pentsatzen nuen. Azkenean, hirugarren geratu nintzen nire erruagatik. Akats batengatik izan zen, baina postua ona da.

N. Portugalen egon berri zara eta ia Europarako txartela eskuratu duzu?

N. A. Borrokaldi bat irabazi nuen eta bi galdu. Europa mailan jolasteko lehen hiru postuetan sailkatu behar nuen. Beste borrokaldi bat irabazi izan banu, finalean izango nintzen. Baina azkenean, ezer ez. Ia 23 urtez azpikoen mailan zerbait egiten dudana.

N. Orain arte jorratutako bidea, ordea, positiboa izan da?

N. A. Bai. Gainera, lehen borrokaldian bigarren postuan sailkatu zen aurkariari irabazi nion. Baina gero berak jarraitu eta hirugarren geratu zen.

N. Pisu tartearen arabera, lehiakortasuna aldatuko da?

N. A. 48 kilotan jende ona dago, maila handikoa. Nire ustez, hor daude indar gehiago duten neskak. Nire pisuari dagokion maila ere ona da.

N. Usurbilgo judo klubera kanpotik dezente etorri eta zeresana ematen ari zarete; Oiana Blanco, Iker Lizarribar, Marijose Sardon... Usurbilgo klubetzer du, hainbeste judoka on izateko?

N. A. Entrenatzailea. Gugatik asko egiten du. Bera gu hemendik ateratzen saiatzen da eta azkenean lortzen du. Beraz, Esteban Arrillaga litzateke garrantzitsua.

N. Usurbilen harrobirik bai klubean?

N. A. Gazteak indartsu datoz. Askok utzi dute, baina ondo ikusten zaie. Judo probatzeko polita da. Kanpora joateko eta mundua ezagutzeko ondo dago.



NEREA ARRUTI,
IRUDIAN ESKUBITARA.

N. Judokan beste kiroletan baino orekatuagoa da neska eta mutilen parte hartzea?

N. A. Usurbilen neskak asko gara, orekatua da. Baina gero, Gipuzkoa mailako txapelketatan ikusten dira ezberdintasunak. Mutilak gehiago dira lehiatzen. Neskak entrenatzera joaten dira zerbait egiteko, baina gero ez dute lehiatzen. Nire pisuan Gipuzkoa mailan, gehienez, bost izango gara.

N. Horrek zuei lehiatzeko aukerak mugatuko dizkizue?

N. A. Espainia mailara joan. Hemen bi borrokaldi egiten dituzu eta han sei egin behar. Aldea dago.

Usurbilgo XXXVI. Pilota Txapelketa, datozen partidak

APIRILAK 4 OSTIRALA, 19:00ETAN

Kadeteak

Irastorza-Ulanga (Andoain) – Santxo-Santxez (Usurbil-Astigarraga)
Aristimuño-Mujika (Alkiza) – Aizpitarte-Lizeaga (Hernani)

APIRILAK 5 LARUNBATA, GOIZEKO 10:30EAN

Jubenilak

Apezetxea-Zubiri (Goizueta) – Galarraga-Erauskin (Altzo)
Mendinueta-Azkunaga (Lakua) – Olabide-Perez (Añorga)

Nagusiak

Rodríguez-Intxausti (Zumarraga) – Artano-Aldazabal (Loiola)

APIRILAK 6 IGANDEA, GOIZEKO 10:30EAN

Jubenilak

Otamendi-Murgiondo (Azpeitia) – Makazaga-Ostolaza (Usurbil)

Nagusiak

Renobales-Arraztoa (Bidegoian) – Goñi –Elizalde (Errenteria)
Aranburu-Huarte (Villabona-Bidegoian) – Dominguez-Apezetxea (Usurbil-Añorga)

APIRILAK 11 OSTIRALA, 19:00ETAN

Kadeteak

Etzaniz-Aizpuru (Azpeitia) – Mendizabal-Ugalde (Usurbil-Oiartzun)
Loidi-Maiza (Añorga) – Loperena-Beola (Oiartzun)

APIRILAK 12 LARUNBATA, GOIZEKO 10:30EAN

Jubenilak

Jauregi-Lertxundi (Añorga) – Xabi-Perez (Zaramaga)
Urkia-Ituarte (Lasarte-Oria) – Odriozola-Irastorza (Oiartzun)

Nagusiak

Zelaia-Legarreta (Amezketeta) – Olangua-Resano (Iruñea)

APIRILAK 13 IGANDEA, GOIZEKO 10:30EAN

Nagusiak

Aztreu-Irureta (Elgeta) – Urtasun-Azanza (Iruñea)
Zerezo-Uharte (Bera) – Jauregi-Berroeta (Maestu)
Araztoa-Landiribar (Burlata) – Agirezabala-Urdanpilleta (Oiartzun)

* Pilota partida denak Usurbilgo frontoian

Agenda !!

Apirilak 3 osteguna

- Euskarazko film laburren zirkuitua Sutegin. 20:00etatik aurrera.

Apirilak 5 larunbata

- Gau Beltza Aginagan. Anestesia, Metraileta eta Lurpe taldeen kontzertua Aginagako Eliza Zaharrean. 22:00etan. Sarrera, 5 euro. Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea. Laguntzailea: Udala.

Apirilak 8 asteartea

- Eñaut Etxamendiren hitzaldia, "Euskara eta hizkuntza indoeuroparrak". 18:30ean Sutegin. Antolatzailea: Nafartarrak.

Apirilak 10 osteguna

Adimen urritasuna duten pertsonen buruzko hitzaldia. 18:00etatik aurrera Sutegin.

Apirilak 12 larunbata

Kale Antzerki Eguna Usurbilen. Eguerditik gaua bitarte.

Apirilak 13 igandea

Bardeetara irteera. Irteera, 7:30ean kiroldegitik abiatu eta itzulera 20:30ak aldera. Bi orduz Bardeetan ibilaldia. Bazkaria Tuteran. Antolatzailea: Nafartarrak. Izena emateko: 665 746 158.

KzGuneko ikastaroak

Apirilak 7 astelehena

"Kontsumitzailea sarean" ikastaroa. 9:00etatik 11:00etara.

Apirilak 11 ostirala

"Sinadura Elektronikoa" ikastaroa. 9:00etatik 11:00etara.

Apirilak 15/16

"Irudi digitalen tratamendua I", Asteartea-asteazkena, 9:00etatik 11:00etara. Gaztelaniaz.

Apirilak 16 asteazkena

"Sinadura Elektronikoa" ikastaroa. 11:00etatik 13:00etara.

Lehen Kale Antzerki Eguna ospatuko da datorren astean Usurbilen

Egun ezberdinak ospatzen dira Egun herrian. Dagoeneko, hainbat eta hainbat sustraitu egin dira: Sagardo Eguna, Erle Eguna... Asmo horrekin abiatuko da datorren larunbatean Lehen Kale Antzerki Eguna.

Apirilaren 12a izango da egun seinatua. Eguerdian hasi eta ordu txikiak arte, antzerkia izango da nagusi Usurbilen. Klowen ikuskizunak, mimoak, kalejirak... Anitza da prestatu den egitaraua. Eta izenburuak dioten bezala, kalean egingo dira ekitaldi denak. Euria egingo balu, ordea, Dema plazako frontoi estalian egingo liriateke ekitaldiak.



"12 K" IKUSKIZUNA ESKAINIKO DU HORTZMUGA TALDEAK.

Euskal Herriko txoko ezberdinetako artistak hurbilduko dira gure artera. Alex Tello eta Ixabel Agirresarobe herritarren egitasmoa izan da hauxe eta Udalaren sustengua jaso dute. Ikuskizuna ziurtatuta dago. Orain eguraldiak laguntzea baino ez da falta.

Adimen urritasunari buruzko hitzaldia

Apirilaren 10ean, adimen urritasunari buruz hitz egingo dute Atzegiko langile batek eta Ordiziako Eguneko Zentroko zenbait partaidek. Arratsaldeko 18:00etan Sutegin, Udarregi ikastolak antolatuta.

Erroizpe elkartearen Batzar Nagusia

Apirilak 13an igandea, Atxokoaldeko Erroizpe Elkarteak urteko Batzar Nagusia egingo du. Bazkideei bertaratzeko deia egin zaie. Batzar Nagusia 11:00tan hasiko da eta hamaiketa-koa ere izango da.

Aitzagako Mus Txapelketaren bosgarren saioa, Andatzpe elkartearen

Aitzagako Mus Txapelketa aurrera doa. Dagoeneko lau jardunaldi jokatu dira, hiru saio besterik ez bukatzeko. Elkartez elkarte-ko biran hurrengo geldialdia Andatzpe Elkartearen izango da. Ostiral honetan, apirilak 4, gaueko 22:00etatik aurrera ekingo zaio berriz ere, karta jokoari.

Aitzagako Mus Txapelketa bigarren txanpan sartuko da Andatzpen jokatu den norgehiagokarekin. Parte hartu nahi duen bikote bako-

tzak 20 euro ordaindu behar ditu. Hitzordua, ostiral honetan, apirilak 4, 22:00etan Andatzpen.

Aurreko jardunaldien atarian gogorarazi bezala, sariak ez dira nolana hikoak. Bi arkume, mariskoa eta txanpaina lehen bikote sarituarrentzat. Lau untxi, txangurroak eta txanpaina bigarren sailkatzen direntzat.

Hirugarren eta laugarren postuak eskuratzen dituztenek, bina untxi eta txangurroak etxeratuko dituzte. Zorte on denei.

ETXEBIZITZA

- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 171.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde haundi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilagunentzako aparkalekua dauka. 210.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara duena. Dena berriua eta amueblatua. 49.800.000 pta!! Tf: 657 71 13 35.
- Terrenoa duen borda bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 664774024
- Terrenoa daukan baserri bat erosiko nuke. 664774024
- 75.000 metro karratuko terrenoa daukan baserri bat daukat salgai. Argi indarra, telefonoa eta ura ditu. Agroturismo bat jartzeko oso egokia. 664774024.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Pisu salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukaldea, egongela eta trasteroa. Berriua. 53.000.000 pezeta. 696 693 710.
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisu salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Pisu alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.

- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trasteroarekin. Garajea aukeran. 685731792

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen dugu. Kotxeak sartzeko egokia, lokal moduan ez dugu alokatzen. 85 euro hilabetean. Interesatuak deitu 943361235 telefonora.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajejan egondako. 620625823.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Astean 3 edo 4 egunetz eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Ordutegian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.

Lan-eskaerak

- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrak emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxekolanak egiteko, umeak edo pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Esperientziduna, informea dauka. Interesatuak deitu 943834895 / 650814429
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.

- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Musika ekipo bat salgai: mahaia, etapak, ahots efektuak... egokia talde baten lokalean jartzeko. Larra DJ 615713204.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberriak umea egingo dutenak. 653719176
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaiaberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Martxoaren 15ean zilar kolorezko eskumuturrekoa brazaletxe itxurakoa galdu nuen. Barrukaldean "uno d 50" jartzen du. 943 36 52 61
- Martxoak 9an Usurbilgo frontoian xira txuri-gorri bat galdu dut. Aurkitu baduzu: 943130036.
- Antzerki txikia egitera etorriko zarenari. Ostegunean 20:30 elkartu gaitzke, baina, beste toki batean hitz egingo dugu. 943 36 03 21
- Otsailaren 24an Igeldo inguruan Pastor Aleman eme gazte bat galdu dugu. Bikote batek hartu zuela uste dugu. Txipa eta indentifikazio plaka ere badauka. 943210330.
- Gizon edo emakume baten bila nabil, apirillean antzerki txiki bat egiteko. 94360321.
- Naranja eta gorri koloreko bi raketa galdu ditugu; bat handia, bestea txikia. 692 837 951.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzatak beltz batekin. Aurkitu badituzu: 685 72 56 81.
- Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aulkitxo salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkia salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak beritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapo-re@euskalnet.net

JAIOTAKOAK

- Angie Artola Zabala, martxoak 4.
- Axel Flores Camino, martxoak 8.
- Naiara Ibargoien Iparragirre, martxoak 8.
- Unai Perez de Arriluzea Zudaire, martxoak 11.
- Iera Aizpurua Uribe, martxoak 11.
- Garazi Mindegia Ruiz, martxoak 17.
- Mikel Zuloaga Giraud, martxoak 21.
- Unax Etxabe Agirretxe, martxoak 21.



Handitzen, handitzen... Zorionak eta muxu handi bat etxeko bi piratei.



Zorionak! Apirilaren 7an Unai eta apirilaren 8an Julenek urteak egingo dituzte. Zorionak eta ondo pasa gurasoen partez.



Aprilaren 4an gure sorgintxoak 3 urte beteko ditu. Zorionak eta txokolatezko muxu handi bat izeba Koro eta etxekoan partez. Ondo pasa!

HILDAKOAK



Pedro Roiz Alonso Martxoaren 29an hil zen 62 urterekin Kaleberri.

KALITATERA EUSKAL OKELA

ALKORTA AUTOZERBITZUA

Frutak Barazkiak Etxeko produktuak Izoituak

Beheko kalea, 4 Telf: 943 36 57 42

Ford

Usurbil Autoak, S.C.L.

Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa, Aitezarra kalea, 1. 20170 USURBIL Faxa: 943 36 62 92

943 36 10 79

TXOTX!!

Txotxetik sagardoa jarraitu inoan!



Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731

Santuenea

LARRE-GAIN DOLARE-SAGARDOTEGIA



Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta ingande
eguerdian IREKITA
Astelehena ITXITA

Larre-Gain Baserrria **Ereñotzu - Hemani**
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



SAIZAR Betiko Sagardoa

Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com

ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81

ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA

ARRATZAIN

DOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.



info@agroturismoarratzain.com
Arratzainzar Baserrria • Telf: 943 36 66 63

☎ 943 36 12 29

iruvin

sagardotegia



Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astiazaransagardoak.com

Aginaga

Sagardotegia

Urte osoan txotxetik




ESTRATA kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxe: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com

UDARREGI IKASTOLA



- 2 urtetik 16 urtera bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Euskal Curriculumaren garapenaz arduratua.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Eleanitza: D eredia; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera, Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza-gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzuezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: dieta orekatuak eta osatuak.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, bertsoegintza, dantza.



Matrikulatzeko epea
Martxoaren 31tik apirilaren 11ra



943 361 216

Udarregi Ikastola
Gernika ibilbidea, USURBIL
www.udarregi.com
www.udarregi.mundua.com